

JOSE ANTONIO ARANA MARTIXA

*MANUEL LEKUONA SARIA EMATE EKITALDIA
Bizkaiko Foru Jauregia, 2011ko urriaren 14an*

Egilea: Pruden Gartzia, euskaltzain urgazlea

I

Adiskideok:

Badakit, ondo jakin ere, horrelako ekitaldien hasieran entzuten dagoen jendea modu askoz ere formalagoan agurtu ohi dela, normalki agintariengandik hasita eta “jaun agurgarria” edo “andre gorena” bezalako hitz solemneak ahoskatuz eta zerrenda luze xamarrak, luzeegiak batzuetan, osatuz. Ondoren, jakina, entzule arruntak ere aipatzen dira, azken lekuan eta hitz ponpoxorik gaineratu gabe.

Bada, barkatuko didazue baina neuk ez dut bide hori hautatu, nahiago baitut guztiei “adiskide” deitu, eta kitto. Izan ere ekitaldi honetara bildu garen guztiok adiskideak gara, etorri zaizkigun agintariak barne, zeren gaur eta hemen bildu bagara guztiok arrazoi bakar batengatik da: guztiok Jose Antonio Arana Martixaren adiskideak ginelako. Batzuk adiskide oso hurbilak, beste batzuk ez horrenbeste; batzuk ez gara, agian, elkarren artean ezagun ere, baina guzti-guztiok ezagutu genuen, eta guztiok maitatu genuen, adiskideak erraz egiten baitzituen eta erraz, oso erraz, biltzen zuen laguntasuna bere inguruan. Izan ere gizon maitagarria zen gure Jose Antonio, denok ezagutu izan dugun gizon hurbila, apala, lagunkoia eta lagunzalea. Guztion adiskidea.

Beraz, izan gaitezen denok Jose Antonioren adiskide eta, ondorioz, elkarren arteko adiskide eta lagun. Eta utz ditzagun, tarte labur batean ez bada ere, karguak, kargak eta eginbeharrak.

Pertsona bat bakarra nahi nuke arau horretatik kanpo atera eta berariaz agurtu eta hori, noski, Maiteder Bareño da, haren alarguna. Izan ere, alde batetik euskaldunon artean adina bada gradua, eta bestetik bera izan baita Jose Antonioren lagunik lagunena, adiskiderik hurbilena, bere andrea. Gaietikoak, seme-alabak, suhi-erranak, ilobak, anai-arrebak, bilobak eta gaietiko ahaide guztiak, denak lagunak, besteak bezala.

Baina utz dezadan behingoz prolegomenoak eta enparauak eta ekin diezaiodan agindu didaten lanari. Neuk, hamar minutuz edo, kontatu behar baitizuet nor zen Jose Antonio Arana Martixa eta zer egin zuen sari hau merezi izateko.

Lan zaila da, bistan dago hori. Batetik, bera nor zen guztiek dakizue eta zuetako gehien-gehienak neuk baino askoz ere hobeto. Zer egin zuen kontatzea, berriz, ez da erraza hamar minututan laburtzea. Baina niri eman didate agindua, eta agindu hori zintzo betetzen saiatuko naiz, ondo betetzen lortuko ote dudan oso garbi ez badaukat ere. Hara, kontatuko dizuedana da nor zen Jose Antonio Arana Martixa nire begietan, eta zer egin zuen, bi hitzetan.

II

Jose Antonio euskalduna zen, hara hura zer zen hitz batean esanda. Eta batek baino gehiagok esango du: a ze nobedadea! Hori zen guztia, Jose Antonio euskalduna zela esatea? Bada, barkatuko dit horrelako alegaziorik lekarkeenak baina nire uste apalean Jose Antonio euskalduna izan zela esatea asko esatea da, eta nahikoa da apur bat pentsatzen hastea horretaz konturatzeko.

Izan ere, badirudi poliki-poliki lortzen ari garela euskalduna izatea normaltasun baten barruan sartzea. Ez dezagun gauzak neurrigabe laztu, ezta inozoki goxotu ere: gaur egun ere Bizkaian bertan, urrunago joan barik, euskalduna izatea arazoa da eta arazoa izan daiteke bizitza normalaren mila eta bat detailetan, baina bide bat hartu dugu eta neuk behintzat esango nuke aurrera goazela, argi eta garbi.

Baina garai luze-luzetan hori ez da horrela izan, adibidez, Jose Antonioren bizitzaren parte handi-handi batean, euskalduna izatea edo, zehatzago esanda, euskalduna izan gura izatea, benetako arazoa zen, arazo latza, mila eta bat arrazoiengatik. Arrazoi nagusia, bistan da, 1936ko Gerra Zibil madarikatua izan zen, baina bistan da ere nagusia izan arren ez dela bakarra: arazoa lehenagotik zetorren, askoz ere lehenagotik: XIX. mendean zehar beste bi gerra zibil izan ziren Euskal Herrian, gerra karlista deituak, alegia, eta zorigaiztoko ondorioa ondo ezaguna da: Foruen abolizioa 1876an. Gaur hemen bilduta gauden leku honen izena Foru Jauregia da eta Foru Aldundiaren egoitza da; bada, gogoratu gaitzen, duela ehun urte baino gehiago, 1876an, Madrileko gobernuak Foruak abolitu zituen.

Horrek egundoko krisia sortu zuen Euskal Herrian. Hortxe kokatuko nuke nik aipatu dudan arazoaren sustraia. Hortik aurrera euskal intelektualak, idazleak, politikariak, baina baita herritar arruntak ere, larritasun handiz hasten dira

galdetzen: zer da euskalduna izatea? Edo agian galdera zehatzagoa eginez: merezi ote du euskalduna izatea?

Batzuk, ezaguna denez, ezetz erantzuten dute. Bat bakarra aipatzeagatik Unamuno ekar dezadan hizpidera; denok gogoratuko duzue, argi eta garbi adierazi zuen horrek euskarak ez zuela bizitza modernorako balio eta zenbat eta lehenago ahaztu, hobe. Jakina, ez zen Unamuno horrela pentsatzen zuen bakarra, asko baitziren berdin pentsatzen zuten euskaldunak, baina bera izan zen kontu hori inolako aitzakiarik gabe jendeaurrean aurkeztu zuena. Eta beharrezkoa litzateke hemen Unamunori buruz ohar luze bat egitea, haren pentsaera hobeto kokatzeko eta sinplekerietatik ihes egiteko, beharrezkoa litzateke ulertu ahal izateko zergatik, adibidez, gure Jose Antonio euskaltzale sutsua izan arren biziki miresten zuen don Miguel Unamuno. Sinplismoak, sinplekeriak, beti txarrak baitira, baina orain ez dago astirik horretarako.

Segi dezagun lehengo hariarekin eta esan dezagun, jakina denez ere, asko izan zirela, gehienak ziur aski, Unamunoren planteamenduaren kontra agertu zirenak eta defendatu zutenak euskararik gabeko Euskal Herria zentzugabekeria hutsa zela. Nagusia, ziur aski, Sabino Arana, baina hori ere ez zegoen bakarrik: euskarari dagokionez ildo berekoak ziren Resurreccion Maria Azkue, Julio Urkixo, Arturo Campión, Txomin Agirre... eta beste asko. Ez da lekua orain zerrenda luzeak egiten hasteko.

Zergatik aipatzen dut, bada, kontu hori gaur eta hemen? Bada, azpimarratzeko une horretan mugimendu intelektual berri eta sendo bat sortzen dela Euskal Herrian. Mugimendu intelektual horren gako nagusia hau da: ikusten dute euskara galtzen ari dela, Euskal Herria *badoala* eta, erreakzio gisa, euskal kultura ikertzen eta lantzen hasten dira: euskara bera, euskal literatura, euskal musika, euskal folklorea, euskal ohiturak, euskal historia, euskal zuzenbidea, euskal artea... baina ikerketa eta proposamen horiek guztiak, beti, zentzu erreibindikatio bat izaten dute: ez dute artea artearentzat egiten, ez dute zientzia zientziarentzat egiten, ez, euskara eta euskal kultura ikertzen dute euskara eta euskal kultura bultzatzeko, sendotzeko, zabaltzeko, modernizatze nahiago baduzue azken urtetan modan jarri den hitz ponpoxo bat erabili.

Bada, Jose Antonio Arana Martixa bete-betean koka daiteke mugimendu zabal horren baitan. Eta arrazoi asko eta luzeak eman daitezke aburu horren alde, baina azalpen luzeegiak astunegiak direlako gaur eta hemen emateko, konformatuko naiz Orixeren aipu ezagun bat gurera ekartzen. Honela idatzi zuen *Euskaldunak* poema handiaren hasieran:

Geroak esan beza:
“erri bat izan zan”
edo-ta ats emaiogun
ontan iraun dezan.

Alegia, gure Jose Antonio Euskal Herriari hats eman nahi zion intelektuala izan zen. Beste hitz arruntago batzuekin esanda: euskalduna izaten segitu nahi zuen euskalduna izan zen Jose Antonio. Eta hori esanda uste dut haren bizitza eta lanari buruzko funtsezko gauza bat esan dugula.

III

Langintza horretan bere izena zerrenda luze eta ohoragarri bati gehitu behar diogu. Nortzuk dira horiek? Aipatu dugu lehentxoago izen batzuk, esan dugu hau ez dela lekua zerrenda luzeak eta ñabardurak egiten hasteko, baina bai beharrezkoa izan daiteke gutxi batzuk bereziki aipatzea, berarengan eragin berezia izan dutelako: Resurreccion Maria Azkue, Aita Donostia, Manuel Lekuona, Jose Migel Barandiaran, Seber Altube, Karmelo Etxegarai, Bonifazio Etxegarai edo, hau jada beste belaunaldi batekoa da, Andres Mañarikua. Hor daude bilduta, ziur aski, Jose Antonioren kezka intelektual nagusien ildoak: euskara, musika, folklorea, antropologia, historia, literatura, zuzenbidea... gai asko dira. Zergatik horrenbeste gai? Zergatik ez jo espezializaziora?

Galdera biribila da hori, erantzuna biribila delako ere, eta hauxe da: Jose Antonio Arana Martixak euskal kulturaren esparruan denetarik egin zuen, eta denetarik egin behar izan zuen ezer ez zegoelako, dena huts-hutsik zegoelako.

Zeren Jose Antonio Arana Martixa benetako basamortu kultural batean hazi eta bizi izandakoa da. Hain zuzen ere bere lanari esker, eta bera bezalako beste batzuen lanari esker, une batetik aurrera basamortuan oasi batzuk agertzen hasi ziren lehenengo, eta gero ibar berdeak, zelaiak, basoak eta lorategiak. Baina hori baino lehenago, nork zeharkatu zuen berrogei urteko basamortua?

Zeren lehen esan dugun bezala, 1876ko aboliziotik abiatuta euskal intelektualak gai izan ziren erreakzionatzeko eta poliki-poliki kultur-giro sendo bat sortzeko. Gai izan ziren, adibidez, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortzeko eta gai izan ziren, adibidez, Euskal Unibertsitatea sortzeko, bai, unibertsitatea esan dut, datorren hilean beteko baitira 75 urte Agirre lehendakariaren Jaurlaritzak Euskal Unibertsitatea sortu zuela Bilbon, ordurako gerra abiatua zelarik. Baina dena dena pikutara joan zen faxistek gerra piztu eta irabazi zutenean. Ondo gogoan izango dugu denok nola geratu zen Gernika bonbardaketaren ondoren, erabat

birrinduta; bada, euskal kultura ere antzera, Gernika bezala geratu zen urte luze-luzetarako.

Jose Antonio Aranak sei urte zeuzkan Gernika bonbardatu zutenean; sei urte, halaber, familiak Gernikatik Bilbora ihes joan behar izan zuenean, ondoren Frantzian aterbetu ahal izateko. Gerra amaitzean, Euskal Herrira itzulirik, gosea, beldurra eta errepresio politikoa zuten zain. Neuk uste dut horrek markatu zuela bere bizitza betirako.

Eta hala ere gure Jose Antoniok burua altxatu zuen eta euskal kulturaren alde lan egitea erabaki. Faxismoaren botaren azpian egonik ere, ez zuen inoiz zapalkuntza onartu eta lanean jarri zen, basamortuaren erdian. Azkue, Barandiaren, Seber Altube... haren jarraitzailea izan zen beti. Jose Antonio Agirre lehendakaria, halaber, figura mitiko bat izango da berarentzat, ezinbesteko erreferentzia bat.

Hasieran lana oso apala zen: otxote bat bildu, koral bat antolatu, herrian kultur ekitaldiak sustatu, herriko aldizkarian artikuluak idatzi, indusketa batean lagundu... gauza txikiak gure begiekin ikusita, baina erregimen faxista baten mendean, zer zen hura?

Hurrengo pausoa, jada beste maila batekoa, ikastola mugimenduarekin etorri zen. Jose Antoniok protagonismo berezia izan zuen horretan, Gernikan bereziki, baina Bizkaian eta Euskal Herrian orobat.

Baina ez zen horretan geratu, gorago jo zuen. Oso laster Euskaltzaindiarekin harremanetan hasten da eta horrek eskaintzen dio, neurri handi batean, beste inon biziki nekez topatzen zen berotasun intelektuala eta euskalduntasuna. Erakunde honekiko inplikazioa, oso apala hasieran, gero eta handiagoa izango da eta denborarekin gure Jose Antonio instituzioaren zutabe sendoenetakoa bihurtuko da: euskaltzain oso, bibliotekari, diruzain, Zuzendaritzako kide... eta, ororen buru, mila eta bat lan eta egitasmoen sortzaile, bultzatzaile, eusle. Bai, asko eta askotarikoak dira Euskaltzaindiaren baitan egin zituen lanak, baina utzidazue bat bereziki nabarmentzen, hura baita inolako zalantzarik gabe berak gehien maite zuena: Azkue Biblioteka, Euskaltzaindiaren biblioteka.

Euskaltzaindiak beti izan du biblioteka bat, edozein akademiari dagokion bezala, baina Jose Antonio izan zen benetan antolatu zuena gaur egun ezagutzen dugun bezala: izena ere bere proposamenez hartu zuen eta funts gehienak bera bibliotekari izan zen bitartean eskuratu zituen. Hantxe ibiltzen zen bera poz-
pozik, antzinako liburu eta paperen artean, ikerketan, antolaketan.

Eta musikari buruz, zer esan? Gauza jakina da mundu horretan dabilzanentzat Jose Antonio Arana Martixa dela euskal musikaren alorrean egon den ikerlerik finenetakoa, finena ez bada. Bere Música vasca (1976, 1987) adituen artean bereziki nabarmentzen den lana da, baina nik neuk nahiago izaten dut beste puntu bat azpimarratu: Jose Antoniok maila guztietan egin zuen lan, xumeenetik hasita goi mailakoetaraino; otxoteak eta koralak sortu, berak kantatu eta zuzendu, ikuskizunak antolatu, euskal musikaz ikertu eta argitaratu... den-dena egin zuen. Kulturari dagokionez Jose Antoniok esparru guztiak bete zituen, bai horizontalki, bai bertikalki. Horretan datza, beharbada, haren meritu nagusia.

IV

Baina honez gero apur bat luzatzen ari gara. Ekitaldia bukatzerakoan emango zaizue Josune Olabarria eta bion artean prestatu dugun biografia txikia eta haren lanen zerrenda luzea eta osoa: 25 liburu, 20 hitzaurre eta 388 artikulua edo ponentzia, guztira 433 sarrera bibliografiko. Benetan luzeegia litzateke horiek hemen komentatzea.

Anekdotak bat kontatuz bukatu nahi nuke. Ez nion inoiz Jose Antoniori entzun baina ziur naiz ezagutzen zuela. Izan ere, anekdota honek zerikusia du Arantzazurekin, eta Arantzazu da Jose Antonioren bihotzean eta espirituan garrantzi berezia duen lekua. Eta, jakina, luze hitz egin beharko genuke ere Arantzazuri buruz eta euskal kulturaren barrutian jokatu duen paperari buruz baina, esan dizuedan bezala, orain anekdota batekin konformatuko gara.

Kontua da Arantzazutik gora joanez Urbiak dagoela, artzain askoren lan eta sasoiko bizilekua. Eta Urbiako larraren erdian bada ermita bat, eta ermita horrek, garai batean bederen, bazuen haren kargu kapilau bat, Arantzazuko frantziskotar bat izaten zena. Bada, 1960ko hamarkadan aita Lasa zen kapilau hori eta igande guztietan igotzen zen artzaintzat meza ematera eta predikatzerara. Gauzak horrela, behin batean ez dakit zein aitzakia erabilita Espainiako Gobernuko ministro jaun bati otu zitzaion igande baten Urbiara igo behar zuela eta artzainekin batera meza entzun. Esan zioten hori Arantzazuko fraideei eta, nonbait, aita guardianak ez zen oso lasai geratu berria entzutean; deitzen dio berehala aita Lasari eta kontatzen dio albistea, era berean gogoratuz ministro jauna entzuleen artean egonik, komenigarria dela sermoian hura bereziki aipatzea. Galdetzen dio aita Lasak ea nola egin behar duen hori, eta guardianak erantzun ministro jaunari zuzentzeko *excelentísimo señor ministro* esan behar duela. Nonbait, aita Lasaren aurpegian errezeloa sortu zion zantzuren bat edo

igarrita, berriz ere azpimarratzen dio komeni dela sermoia hastea esanaz *excelentísimo señor ministro*. Eta horrela geratu ziren gauzak.

Ailegatzen da igande hori eta, betiko moduan, igotzen da aita Lasa Urbiara, oinez, fraideen bidea deitzen zaion lekutik. Badoa ermitara eta meza hasi baino lehentxoago, hantxe agertzen da ministro jauna eta konpainia. Meza entzuten, jakina, Urbiako betiko artzainak. Eta ailegatzen da sermoiaren momentua. Eta, momentu horretan horrela abiatzen du hitzaldia aita Lasak: “*Excelentísimo señor ministro, excelentísimos pastores*”.

Gogoan daukat mutikotan behin baino gehiagotan aditu nuela anekdota hori hainbat jenderen ahotik, eta biziki liluratu izan nauela beti. Hitzaldi honen hasieran ere esan dizuet Jose Antonio Arana Martixa hitz batean definitu beharko banu hauxe besterik ez nuela esango, euskalduna zela.

Eta zer da euskalduna izatea? Bada, konbentzituta nago kontatu dudan anekdotan aita Lasak oso ondo esplikatzen digula zer den euskalduna izatea euskaldun asko-askoren begietan. Eta konbentzituta nago gure Jose Antoniok ere estimatuko zuela anekdota hau bere omenezko ekitaldian kontatzea.

Horregatik, hitz hauekin bukatu nahi nuke: *agintari agurgarriok, entzule agurgarriok*, esan dut.